Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 9a, asteazkena — 46 — Miércoles, a 9 de marzo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2022ko deialdia onartzea: Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardotarako sagarrondoen landaketa, hobekuntza eta garapenerako laguntzak.*

Diputatuen Kontseiluak 2022ko otsailaren 22ko bileran honako erabakia hartu du:

Diputatuen Kontseiluaren 2016ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardotarako sagarrondoak landatu, hobetu eta garatzeko dirulaguntzak arautu ziren (ekainaren 28ko 122 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 2022eko aurrekontuetan, adierazitako dirulaguntzetarako baliabide ekonomikoak 325.000 euro izango dira.

Erabaki honen bidez onesten dira, batetik, dirulaguntza programa arautzen duten oinarri arautzaileen aldaketa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legeak xedatutakora egokitzeko; eta bestetik, dirulaguntza horien 2022ko deialdia.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardotarako sagarrondoak landatu, hobetu eta garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorren 5. oinarria. Oinarri horiek, Diputatuen Kontseiluaren 2016ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez onartu ziren (2016ko ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 122. zk.) eta Diputatuen Kontseiluaren 2019ko abenduaren 10eko erabakiaren bidez (2019 abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 248 zk.) aldatu ziren. Aldaketa erabaki honen I. eranskinean jasotzen da.

Erabaki honen bidez onartutako aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera izango du eragina.

*Bigarren.* Onestea aipatutako dirulaguntzen 2022ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* Deialdirako 325.000,00 euroko gastua baimentzea, kontu sail hauen kargura: 1.0440.400.770.00.09.2022 (75.000,00 €) eta 5.0440.400.770.00.09.2023 (250.000,00 €).

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Modificación de las bases reguladoras y convocatoria 2022 de ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 22 de febrero de 2022, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 21 de junio de 2016 se aprobaron las bases reguladoras de ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (Boletín Oficial de Gipuzkoa número 122, de 28 de junio).

Los recursos económicos previstos para el pago de estas ayudas en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el ejercicio 2022 ascienden a un total de 325.000 euros.

Mediante el presente acuerdo se aprueba, por una parte, la modificación de las bases reguladoras del programa de ayudas para su adaptación a lo establecido por la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras; y por otra, la convocatoria de 2022 de dichas ayudas.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Modificar la base 5.ª de las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 21 de junio de 2016 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 122 de 28 de junio de 2016), modificadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de diciembre de 2019 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 248, de 30 de diciembre de 2019) en los términos establecidos en el anexo I al presente acuerdo.

La modificación aprobada por el presente acuerdo producirá efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2022 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto de 325.000,00 euros, para hacer frente a la convocatoria, con cargo a las partidas presupuestarias 1.0440.400.770.00.09.2022 (75.000,00 €) y 5.0440.400.770.00.09.2023 (250.000,00 €).

EK\CV GAO-I-2022-01136

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzek errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko otsailaren 22a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (1136)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, hobetu eta garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa. Oinarri horiek, Diputatuen Kontseiluaren 2016ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez onartu ziren (2016ko ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 122. zk.).*

Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, hobetu eta garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 5. oinarria aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

*5. Laguntzak emateko prozedura.*

Dirulaguntzak elkarren arteko lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, betiere, aurrekontuaren mugen barruan. Dirulaguntza eskaerak kopuru hori baino handiagoak badira, banaketa proportzionalki egingo da. Ez da banaketa proportzional hori egingo titulartasun mota hauek dituzten ustiategientzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan (urriaren 15eko 8/2015 Legea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa; 15.c artikulua), Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Nekazaritzako Ustiategien Erregistroen datuen arabera.

Dena dela, kasu guztietan lehentasuna emango zaie sagardiak jartzeko inbertsioei, makineria berezia erostekoen aurrean. Azken horiek laguntza jaso ahal izango dute baldin eta sagardiak jartzeko inbertsioetarako aurreikusitako laguntza zenbateko osoan eman ondoren, deialdiko kreditua agortu ez bada.

ERANSKINA II

*2022ko ekitaldiari dagokion deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, hobetu eta garatzeko dirulaguntzak ematekoa.*

*Lehena. Oinarri arautzaileak.*

Deialdi honetako dirulaguntzak Diputatuen Kontseiluaren 2016ko ekainaren 21eko Erabakiaren bidez (2016ko ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 122 zk.) onartutako oinarrietan arautzen dira, Diputatuen Kontseiluaren 2019ko abenduaren 10eko Erabakiaren bidez (2019 abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 248 zk.) eta 2022ko otsailaren 22ko Erabakiaren bidez egindako aldaketekin (deialdi honekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dena).

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 22 de febrero de 2022.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (1136)

ANEXO I

*Modificación de las bases reguladoras de las ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 21 de junio de 2016 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 122 de 28 de junio de 2016).*

Se modifica la base 5.ª de las bases reguladoras de las ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, que queda redactada del siguiente modo:

*5. Procedimiento de concesión.*

La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia no competitiva, dentro de los límites del crédito existente. En el caso de que las ayudas solicitadas superen este importe, se aplicará un prorrateo. No se aplicará este prorrateo a las explotaciones cuya titularidad sea de una mujer, o de titularidad compartida, o de una persona jurídica en la que el porcentaje o las participaciones sociales en manos de mujeres sean como mínimo del 50 %, caso de ser dos las personas asociadas, o como mínimo equilibrada en los demás casos (Artículo 15.c de la Ley 8/2015 de de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras), según los datos obrantes en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

No obstante, se priorizarán, en todo caso, las inversiones auxiliables para la implantación del manzanal frente a las de compra de maquinaria específica, subvencionándose estas últimas sólo en caso de no haberse agotado el crédito de la convocatoria tras subvencionar en el total de la cuantía prevista las inversiones para implantación de manzanal.

ANEXO II

*Convocatoria 2022 de ayudas a la plantación, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*Primero. Bases reguladoras.*

Las ayudas de esta convocatoria se rigen por las bases reguladoras aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 21 de junio de 2016 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 122, de 28 de junio de 2016), modificadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de diciembre de 2019 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 248, de 30 de diciembre de 2019) y por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 22 de febrero de 2022 (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con la presente convocatoria).

*Bigarrena. Onuradunak.*

Aipatutako Erabakian onartutako oinarrien artean, bigarrenean xedatutako baldintzak betetzen dituztenek lortu ahal izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak.

*Hirugarrena. Subentziona daitezkeen inbertsioak.*

Subentziona daitezkeen inbertsioak lehen oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituztenak izango dira, 2023ko azaroaren 20ra bitartean eginikoak.

*Laugarrena. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.*

Laguntza eskaerak, ustiategiari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu ahal izango dira, 20 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen den den egunaren biharamunetik zenbatuta.

Eskatzaile bakoitzeko, urtean eskaera bakarra onartuko da.

*Bosgarrena. Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailea bakarkako titularra bada:

— NAren fotokopia, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren esku ez baldin badago.

b) Ustiategiaren titularra pertsona juridikoa bada:

— IFZren fotokopia, eta legezko ordezkariaren NAren fotokopia, baldin eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak lehendik ez badauka dokumentazio hori.

— Eraketa eskrituraren eta estatutuen fotokopia konpultsatua.

— Erakundearen gobernu organoak eskaera eskatzeko eta ordezkaria izendatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

— Bazkideen zerrenda, bakoitzak kapital sozialera egindako ekarpenarekin.

— Zuzendaritza-batzordearen edo erabaki-organoaren osaerari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, sexuaren arabera bereizita, bai eta kide diren emakumeen eta gizonen guztizko kopurua ere.

c) Kasu guztietan:

— Erantzukizun-aitorpena, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena.

— Bigarren oinarri arautzailearen 2.1 atalak aipatzen duen ahalmena eta lanbide eskumena kreditatzen duen dokumentazioa.

— Teknikari eskudunaren txostena. Bertan, lurraren egokitasuna karakterizatu eta mekanizazioa baloratuko dira; landaketa egin aurretik egin beharreko lanak zerrendatuko ditu (derrigorrez bete beharrekoak); eta zurituko du, hala badagokio, deialdiaren eranskinean aipatzen diren beste inbertsio desberdinak egiteko beharra, eta inbertsio horien aurrekontu zehatza (lur berdinketa puntualak, sarrerak, haize babesaren egiturak, etab.).

— Lurra edukitzeko erregimena egiaztatzen duen dokumentazioa, 25 urtekoa gutxienez.

*Segundo. Personas beneficiarias.*

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente convocatoria aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos en la base reguladora segunda, de las aprobadas mediante el citado acuerdo.

*Tercero. Inversiones subvencionables.*

Serán subvencionables las inversiones que cumplan los requisitos de la base reguladora primera, ejecutadas hasta el 20 de noviembre de 2023.

*Cuarto. Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes de ayuda deberán presentarse en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes a la ubicación de la explotación agraria, en el plazo de 20 días hábiles, contado a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sólo se admitirá una solicitud de ayuda por persona solicitante y año.

*Quinto. Documentación a aportar por las personas solicitantes.*

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Si se trata de persona titular individual:

— Fotocopia del D.N.I. en caso de que no obre en poder del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

b) Si se trata de explotación cuya titularidad la ostenta una persona jurídica:

— Fotocopia del N.I.F., y fotocopia del D.N.I. del representante legal, en ambos casos, siempre que dicha documentación no obre en poder del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

— Fotocopia compulsada de la escritura de constitución y de los estatutos.

— Certificación del acuerdo adoptado por el órgano de gobierno de la entidad para solicitar la ayuda y designar representante.

— Relación de socios con su aportación al capital social.

— Declaración responsable de la composición de su junta directiva u órgano de decisión desagregado por sexo además del número total de mujeres y hombres asociados.

c) En todos los casos:

— Declaración responsable de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Documentación acreditativa de la capacidad y competencia profesional a la que se refiere el apartado 2.1 de la base reguladora segunda.

— Informe de técnico/a competente que caracterice la aptitud del suelo y valore su mecanización; que enumere las labores previas a la plantación (que deberán ser de obligada ejecución); que justifique, en su caso, la necesidad de abordar otras inversiones diferentes a las que figuran en el anexo de esta convocatoria y su presupuesto detallado (nivelaciones puntuales de tierras, accesos, cortavientos, etc.).

— Documentación justificativa del régimen de tenencia de la tierra por un plazo no inferior a 25 años.

EK\CV GAO-I-2022-01136

d) Eskatzailea frutazaina bada:

— Egilearekin sinatutako kontratua edo akordioa, non diruz lagunduko den landaketaren ekoizpena erosteko konpromisoa hartzen duen.

— Nekazaritzako Ekoizleen Erregistro Orokorraren (REGEPA) inskripzio zenbakia, edo aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera.

— Eskatzailearen konpromisoa, diru laguntzen oinarri arautzaileen 10.1. puntuan jasota dauden betebeharrak bere gain hartzen dituela adierazten duena.

e) Eskatzailea sagardo egilea bada:

— Eskatzailearen konpromisoa, diru laguntzen oinarri arautzaileen 10.2. puntuan jasota dauden betebeharrak bere gain hartzen dituela adierazten duena.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

*Seigarrena. Inbertsioak baloratu eta egiaztatzea.*

Diru laguntzaren ordainketa laguntza oinarritzen duen inbertsioa egitearen pean egongo da, eta, behin gauzatutako inbertsioei dagozkien ziurtagiri eta ordainagiriak jasota, eta dagokion araudiari jarraituz egin direla egiaztatuta, ordainketaren baimena emango da eta onuradunari ordaindu beharreko diru laguntzen behin betiko diru kopurua zehaztuko.

2022eko ekitaldian diruz laguntzekoak diren inbertsioak baloratzeko deialdi honetako eranskinean adierazitako moduluak ezarriko dira.

Diruz laguntzekoak diren inbertsioen zati bat onuradunak berak edo haren familiak gauzatzen badu, inbertitutako lanorduak onuradunak aurkeztutako balorazioaren bidez frogatuko dira. Diruz laguntzekoak izango dira hobekuntza proiektua abiarazteko egindako lanaren kostuak, eta laguntzarako konputagarriak izango dira Eranskinean jasotako moduluetan adierazitako kontzeptu eta zenbatekoak, betiere, gainerakoa ordaindutako fakturekin justifikatzen bada.

*Zazpigarrena. Laguntzen finantzazioa eta aurrekontua.*

2022eko ekitaldiari dagozkion dirulaguntzak ordaintzeko, hasiera batean izendatutako diru baliabideak 325.000,00 eurokoak dira, 1.0440.400.770.00.09.2022 (75.000 €) eta 5.0440.400.770.00.09.2023 (250.000 €) kontu sailen kargura.

*Zortzigarrena. Jakinaraztea.*

Prozeduraren ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluak jasotakoaren arabera.

ERANSKINA

*Patroi klonalean eginiko inbertsio lagungarriak baloratzeko moduluak.*

Erreferentzia: Sagardotarako sagarrondoen hektarea baten prestakuntza eta landaketa, patroi klonalean txertatua, eramateko sistema ardatz zentrala edo antzerakoa eta laguntzeko egitura izango dituena. Azalera 100 x 100. 90 m luzera duen 18 zuhaitz lerro alanbrezko hiru lerroekin.

d) Cuando la persona solicitante sea fruticultora:

— Contrato o acuerdo firmado con persona elaboradora que se comprometa a adquirir la producción de la plantación objeto de ayuda.

— N.º de inscripción en el REGEPA (Registro general de la producción agraria), o en su caso solicitud de inscripción en el citado Registro.

— Compromiso suscrito por la persona solicitante asumiendo las obligaciones recogidas en el punto 10.1 de las bases reguladoras de estas ayudas.

e) Cuando la persona solicitante sea elaboradora de sidra:

— Compromiso suscrito por la persona solicitante asumiendo las obligaciones recogidas en el punto 10.2 de las bases reguladoras de estas ayudas.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

*Sexto. Valoración y justificación de las inversiones.*

El pago de la subvención estará condicionado a la realización de la inversión que fundamente la ayuda, y una vez recibidas las certificaciones y justificantes de pago relativos a las inversiones ejecutadas y verificado que éstas se han realizado de acuerdo con la normativa correspondiente, procederá la autorización del pago y la determinación del importe definitivo de las ayudas a pagar a la persona beneficiaria.

Para la valoración de las inversiones para las que se solicite ayuda en el ejercicio 2022, se aplicarán los módulos indicados en el anexo de esta convocatoria.

Cuando parte de las inversiones objeto de ayuda hayan sido realizadas por la propia persona beneficiaria y su familia, las horas de trabajo invertidas se justificarán mediante valoración presentada por la persona beneficiaria. Se considerarán subvencionables los costes del trabajo propio efectuado para implantar el proyecto de mejora, siendo computables a efectos de ayuda los conceptos y cantidades que figuren en los módulos indicados en el Anexo, y siempre que se justifique el restante con facturas pagadas.

*Séptimo. Financiación y presupuesto de las ayudas.*

Los recursos económicos inicialmente destinados al pago de las ayudas correspondientes a la convocatoria del ejercicio 2022 serán imputables a las partidas presupuestarias 1.0440.400.770.00.09.2022 (75.000 €) y 5.0440.400.770.00.09.2023 (250.000 €), por importe total de 325.000,00 euros.

*Octavo. Notificación.*

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

ANEXO

*Módulos para la valoración de las inversiones auxiliables en plantaciones en clonal.*

Referencia: Preparación y Plantación de 1 hectárea de manzana de sidra sobre patrón clonal con sistema de conducción en eje central o similares y con estructura de apoyo. Superficie 100 x 100. 18 filas de árboles de 90 m de largo con tres líneas de alambre.

EK\CV GAO-I-2022-01136

| *Azalpena*<br>*Concepto* | *Zenbatekoa*<br>*Cantidad* | *Unitatea*<br>*Unidad* | *Zenbatekoa*<br>*Coste/Ha* |
|---|---|---|---|
| Proiektua / Proyecto | 1 ud | 300 €/ha | 300 € |
| Lurraren garbiketa (hala badagokio) / Limpieza del terreno (en su caso)(*) | | | 150,00 € |
| Lur prestaketa / Preparación del terreno[1] | | | |
| Lurpe-lanketa / Subsolado | | | 600,00 € |
| Ongarria / Abono | 500 kg | | 700,00 € |
| Ongarritzea / Abonado(*) | | | 60,00 € |
| Karea / Cal | 600 kg | | 220,00 € |
| Kareztatzea / Encalado(*) | | | 60,00 € |
| Simaurtzea / Estercolado(*) | 40.000 kg | | 1.000,00 € |
| Grada birakaria pasatzea / Pase grada rotativa(*) | | | 180,00 € |
| Zuinketa eta markatzea / Replanteo y marcaje(*) | | | 250,00 € |
| Egitura / Estructura | | | |
| 3,5 m-ko egurrezko bitarteko zutoinak (10/12 sekzioa) edo hormigoizkoak /<br>Postes intermedios de madera de 3,5 m sección 10/12 ) o su equivalente en hormigón | 95 | 17,10 €/postea | 1.624,50 € |
| 3,5 m-ko egurrezko azken zutoinak (12/14 sekzioa) edo hormigoizkoak /<br>Postes finales de madera de 3,5 m sección 12/14 o su equivalente en hormigón | 38 | 20,35 €/postea | 773,30 € |
| Galbanizatu hirukoitzeko alanbrea 2,00 mm / Alambre triple galvanizado 2,00 mm | 5.200 m.l. | 1,60 €/kg | 240,00 € |
| Ainguraketak / Anclajes | 38 | 20,40 €/aing.<br>20,40 €/anclaje | 775,20 € |
| Posteak, alanbreak eta ainguraketak jartzea / Instalación postes, Alambres y Anclajes (*) | | | 1.600,00 € |
| Tresneria (gripleak, finkatzaileak...) / Utillaje (griples, fijadores...) | | | 400,00 € |
| Landarea / Planta | | | |
| Landarea | | 5,50 €/landarea<br>5,50 €/planta | 3.630,00 € |
| Landatzeko esku lana / Mano de obra plantar (*) | | 1,15 €/landare | 760,00 € |
| Banakako babesa / Protección individual | | | |
| Babeslea / Protector | 660 ud | 1 €/landarea<br>1 €/planta | 660 € |
| Babesa jartzea / Colocación del protector (*) | 660 ud | 0,5 €/landarea<br>0,5 €/planta | 330 € |
| Ez ohiko inbertsioak / Inversiones extraordinarias | | | |
| Baterako babesa (ehiza-itxitura) / Protección conjunta (cierre cinegético) | | | |
| Materialak / Materiales | 400 m.l. | 7,5 €/ml | 3000 € |
| Jartzea / Colocación (*) | 400 m.l. | 7,5 €/ml | 3000 € |
| Baterako babesa (abeltzaintza-itxitura) / Protección conjunta (cierre ganadero) | | | |
| Materialak / Materiales | 400 m.l. | 2,4 €/ml | 960 € |
| Jartzea / Colocación (*) | 400 m.l. | 2,4 €/ml | 960 € |
| Fitosanitarioen armairua / Armario fitosanitarios | 1 ud | 300 €/ud | 300 € |
| Gainontzeko inbertsioak (txosten teknikoa + aurrekontua)<br>Resto inversiones (informe técnico + presupuesto) | | | |

(*)Kontzeptua bertako eskulan gisa zuritu daiteke / Concepto justificable como mano de obra propia

EK\CV GAO-I-2022-01136

[1] Ongarri eta karea kontzeptuetan lagungarria den gehieneko zenbatekoa moduluan adierazten da. Hala ere, formulazioak ugariak direnez, erosketa-faktura eta ordainketaren egiaztagiriez gain,ohar bat erantsi beharko da, non aholkulari teknikoak landaketan bertan erabilitako produktuen kopurua adierazko duen. / La cuantía máxima subvencionable por el concepto de abonado y cal es la expresada en el módulo. Sin embargo, debido a la gran variedad de formulaciones, deberá adjuntarse junto con la factura de compra y justificante de pago, una nota en la que el técnico asesor indique la cantidad específica indicada de cada producto que realmente haya sido empleada en dicha plantación.

*Frankoan eginiko landaketen inbertsio lagungarriak baloratzeko moduluak.*

Erreferentzia: Sagardotarako sagarrondoen hektarea baten prestakuntza eta landaketa, patroi frankotan txertatua, zurkaitzarekin. Azalera 100 x 100. 90 m luzera duen 13 zuhaitz lerro.

*Módulos para la valoración de las inversiones auxiliables en plantaciones sobre franco.*

Referencia: Preparación y Plantación de 1 hectárea de manzana de sidra sobre patrón franco, con tutor de apoyo. Superficie 100 x 100. 13 filas de árboles de 90 m de largo.

| *Azalpena*<br>*Concepto* | *Zenbatekoa*<br>*Cantidad* | *Unitatea*<br>*Unidad* | *Zenbatekoa*<br>*Coste/ha* |
|---|---|---|---|
| Proiektua / Proyecto | 1 ud | 200 €/ha | 200 € |
| Lursailaren garbiketa (behar bada) / Limpieza del terreno (en su caso)(*) | | | 150,00 € |
| Lur prestaketa / Preparacion del terreno | | | |
| Lurpe-lanketa landaketa lerroan / Subsolado línea de plantación | | | 350,00 € |
| Ongarria / Abono | 400 kg | | 200,00 € |
| Ongarritzea / Abonado(*) | | | 40,00 € |
| Karea / Cal | 300 kg | | 110,00 € |
| Kareztatzea / Encalado(*) | | | 40,00 € |
| Simaurtzea / Estercolado(*) | 4.000 kg | | 180,00 € |
| Zuinketa eta markatzea / Replanteo y marcaje(*) | | | 100,00 € |
| Egitura / Estructura | | | |
| Zurkaitza / Tutor | 200 | 2,20 €/ud | 440,00 € |
| Zurkaitza jartzea / Instalación tutor(*) | 200 | 1 €/ud | 200,00 € |
| Landarea / Planta | | | |
| Landarea | | 5,50 €/landare<br>5,50 €/planta | 1.100,00 € |
| Landatzeko eskulana, zuloa egitea barne / Mano de obra plantar, incluido ahoyado (*) | | 4,00 €/landare<br>4,00 €/planta | 800,00 € |
| Banakako babesa / Protección individual | | | |
| Babeslea / Protector | 200 ud | 1 €/landare<br>1 €/planta | 200 € |
| Babeslea jartzea / Colocación del protector(*) | 200 ud | 0,5 €/landare<br>0,5 €/planta | 100 € |
| Ez ohiko inbertsioak / Inversiones extraordinarias | | | |
| Baterako babesa (ehiza-itxitura) / Protección conjunta (cierre cinegético) | | | |
| Materialak / Materiales | 400 m.l. | 7,5 €/ml | 3.000 € |
| Jartzea / Colocación(*) | 400 m.l. | 7,5 €/ml | 3.000 € |
| Baterako babesgarria (abeltzaintza-itxitura) / Protección conjunta (cierre ganadero) | | | |
| Materialak / Materiales | 400 m.l. | 2,4 €/ml | 960 € |
| Jartzea / Colocación(*) | 400 m.l. | 2,4 €/ml | 960 € |
| Fitosanitarioen armairua / Armario fitosanitarios | 1 ud | 300 €/ud | 300 € |
| Gainontzeko inbertsioak (txosten teknikoa + aurrekontua) / Resto inversiones (informe técnico + presupuesto ) | | | |

(*)Kontzeptua bertako eskulan gisa zuritu daiteke. / Concepto justificable como mano de obra propia

[1]Ongarri eta karea kontzeptuetan lagungarria den gehieneko zenbatekoa moduluan adierazten da. Hala ere, formulazioak ugariak direnez, erosketa-faktura eta ordainketaren egiaztagiriez gain,ohar bat erantsi beharko da, non aholkulari teknikoak landaketan

bertan erabilitako produktuen kopurua adierazko duen. / La cuantía máxima subvencionable por el concepto de abonado y cal es la expresada en el módulo. Sin embargo, debido a la gran variedad de formulaciones, deberá adjuntarse junto con la factura de compra y justificante de pago, una nota en la que el técnico asesor indique la cantidad específica indicada de cada producto que realmente haya sido empleada en dicha plantación

EK\CV GAO-I-2022-01136